

Intxaurreondo

Erosterakoan, adi

Intxaurreondo ikastolan, "Gehiago, zertarako?" lelopean, kontsumo arduratsuari buruzko jardunaldiak egiten ari dira asteotan. Ekintza gehienak ikastolako haurrentzat dira, baina badira irakasle, gurasoei eta gainerako auzotarrei zuzendutako ekimenak ere.

Gladys Villalba / Raul Perez

Intxaurreondoko ikastolak ikasturtero antolatu ohi dituzte gai zehatz bati buruzko jardunaldiak. Aurreko urteetan, besteak beste, herri Saharaiarra eta ijitoen kultura izan zuten hizpide. Aurten kontsumo arduratsua da ardatza. Ikastolako kide Mikel Ruiz de Larrinagak egitasmoaren nondik norakoa azaldu digu: "Argi dago kontsumitzea be-

harrezkoa dela, baina jardunaldion bidez, haurrek erosteko orduan zenbait gauza aintzat har ditzaten nahi dugu: zein datu irakurri behar dituzten etiketan, marka batzuen atzean haur esplotazioa dagoela eta abar". Etiketei buruzko tailerra, adibidez, egin dute dagoeneko. "Haurrei etiketako informazioa azaldu diegu, hau da, produktuaren jatorria eta iraunkitze-data edo, arropen kasuan, garbitzeko moduari buruzko oharra", dio Mikel Ruiz de Larrinagak.

Kontsumo Busa

Jardunaldiok hilaren 28an amaituko dira eta ordura arte ekitaldi ugari izango dira ikastolan. Asteazkenean, hilak 26, ikasle, guraso, irakasle eta auzotar guztiei zuzendutako jokoaren inguruko ikastaroa egingo da. Mikel ikastaro honen funtsaz mintzatu zaigu: "Joko askok lehiakortasuna bultzatzen duten bitartean, beste batzuk haurren arteko lankidetzan oinarritzen dira, eta hain zuzen, horiei buruz ariko gara". Ekimen honetarako parte hartzeko ize-



na eman behar da alde zuzeneko ikastolan bertan.

Ostegunean, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Busa izango da ikastolan. Bi teknikari elikadura egokiaren garrantziaz eta publizitateaz mintzatu zaizkie haurrei. Jardunaldiok hilaren 28an, ostiralean amaituko dira. Egun horretan, goizez, Trokolo antzerki talde nafarrak "Nerezako" obra antzeztuko du. Telebistan iragartzen dutena erosteari uko egin ezin dion mutiltxo bat da protagonista. Arratsaldean, esplotaziorik gabe eta modu bidezkoan ekoiztutako jakiak eta edariak erosteko aukera izango da. Ekuadorreko azukrearekin eta Ghanako txokolatearekin presaturiko txokolatea ere jan ahalko dute ikastolara gerturatu direnak.

euskararen
donostia

plafonatu



Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Haur zinema

- "Sorgin bat etxean" Azaroaren 14tik aurrera Astoria zinemaren 6-12 urte bitartekoentzat
- "Betizu izar artean" Egoitz Rodriguez 70 min. Euskarazko bertsoa Astoria zinemaren

Zinema

- "Ergela" Hakech 1951 Nosferatu Azaroaren 26an, 20:15etan Antzoki Zaharrean Euskarazko azpitituluekin

Antzerkia

- "ba" Hika (Estreinaldia) Egia Kultur Etxean. 9€ Azaroaren 20an eta 23an, 20:00etan
- "Kontenedora baten istorioak" Maskarada Lugaritz Kultur Etxean. 9€ Azaroaren 27an eta 29an, 20:30etan

Haur antzerkia

- "Helen" Panta Rhei Azaroaren 23an, 18:00etan Antzoki Zaharrean. 4.25€ 6 eta 10 urte bitartekoentzat

euskaraz.net